


# LEZO HERRI ESKOLAKO KONTINGENTZIA PLANA



2020/2021 IKASTURTEA

1. SARRERA
2. 3 AGERTOKIAK
3. HH SARRERA-IRTEERAK
4. LH SARRERA-IRTEERAK
5. AUTOBUSA
6. GOIZ TXOKOA
7. HH
  - a. IKASLEAK:
    - i. Segurtasun neurriak
    - ii.
  - b. IRAKASLEAK
8. LH
  - a. IKASLEAK:
    - i. Segurtasun neurriak
  - b. IRAKASLEAK
9. JANGELA
10. LIBURUTEGIA
11. GARBIKETA ZERBITZUA
12. FAMILIEI ARRETA

## 1. SARRERA

Kontingentzia plan honen helburua COVID-19 izurritearen egoeran ikasleen hezkuntza eskubideari erantzun egokia ematea da.

Plan hau osatzeko orduan Hezkuntzak ezarritako COVID-19 Protokolo Orokorra, 2020-2021 ikasturte hasierako Ebazpena eta Hezkuntzak argitaratutako Jarraibide ezberdinak kontutan hartu ditugu.

Kontingentzia plan hau eskola komunitate osoari helarazten diogu (eskolako langile guztiei, familiei eta udalari ere), denok modu berean joka dezagun.

## 2. 3 AGERTOKIAK

2020ko ekainaren 24an Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak “**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IKASTETXEETAN KORONABIRUSAREN (SARS-CoV-2) AURREAN ZER-NOLA JARDUTEKO PROTOKOLO OROKORRA. 2020-2021 IKASTURTEA**” helarazi zigun. Protokolo hori autonomia erkidegoko eskola guztiek jarraitu beharko dugu.

Protokolo honetan 2020-21 ikasturterako hiru agertoki desberdin zehazten dira. Osasun-egoeraren arabera, honela jokatu da:

**1. agertokia:** normaltasun-agertoki bat. Ikasturtea irailean hasiko da, aurrez aurre, etapa eta maila guztietan. Aurrez aurreko irakaskuntza-jarduera modu normalizatuan garatuko da.

- Orokorrean, 1,5 metroko distantzia mantenduko da.
- Talde egonkorak osatuko dira Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan
- Sarrera-irteera ateak eta itxaron gunek zehaztuko dira.
- Jolasgaraiak ahalik eta ikasle-kopuru txikienak aldi berean batzeko moduan antolatuko dira, pilaketarik egon ez dadin.
- Jasotako jarraibideen arabera, jantoki-zerbitzuaren inguruko erabakiak hartu dira eta txosten honekin batera duzue.
- Haur Hezkuntza: Maskara ez da derrigorrezkoa izango nahiz eta erabilera gomendatzen da.
- Lehen Hezkuntzan musukoaren erabilera derrigorrezkoa izango da eskola eremu guztian.

**2. agertokia:** aurrez aurreko jarduera eta jarduera telematikoa txandakatu egingo dira. Ikasturte edo ikasle jakin batzuen presentzialtasuna lehenetsi beharko da.

- Haur eta Lehen Hezkuntzako etapen irakaskuntza presentziala lehenetsiko da goizeko ordutegian.

- Geletan ikasle kopurua mugatu beharra egon daiteke. Eskolak espazio librerik baldin badu, gela moduan erabiliko dira.
- Jolaserako aldian edo aldietan ikasleei emango zaien arreta ikastetxeko zuzendaritzak antolatuko du eta, horretarako, osasun-agintariek haietan ezarritako espazioen erabilerari, pertsonen arteko distantziei, edukierei eta denboren plangintzari lotutako neurriak hartuko dira kontuan.
- Jantoki-zerbitzua hezkuntza- edo gizarte-egoera bereziki ahulean dauden eta ikastetxeko zuzendaritzak familien premia-irizpideen arabera ezartzen dituen ikasleentzat baino ez da izango.

**3. agertokia:** hirugarren eszenatokian konfinamendua eta hezkuntza-jarduera ez presentziala aurreikusten da.

- HH-ko ikasleekin telematikoki aritzeko prozedurak baloratuko dira. Adina eta beharrak kontuan hartuta hartuko dira erabakiak.
- LH-ko ikasleak telematikoki konektatzeko ordutegi batzuk ezarriko dira, hezkuntza-jardueraren erritmoari eta jarraipenari eusteko, eta ikasleek erreferentzia gisa beren ikasgelarako ezarritako ordutegia izango dute.

### 3. HH SARRERA-IRTEERAK:

- A taldeak Mikelen ondoko atetik sartu eta aterako dira, B taldeak Olentzeroren sarreratik.
- Gurasoek ezingo dute seme-alabekin eskolara sartu. Irakaslea sarrerara jeitsiko da, bere ikasleak jaso eta gelara eramango ditu.
- Bere txanda duten ikasleak marraren barrura sartuko dira eta ilaran jarri. Bertan irakasleak temperatura hartu eta hesiaren barruan itxoingo diete gainontzeko gelakideei. Gainontzeko ikasle eta gurasoek lurreko marraren atzean itxoin beharko dute, irakasleak esan arte. Segurtasun neurriak errespetatu beharko dira bai eta pilaketak ekidin.

MAILA	GOIZEKO SARRERA	GOIZEKO IRTEERA	ARRATSALDEKO SARRERA	ARRATSALDEKO IRTEERA
HH2	09:15 (urritik aurrera)	12:20 (13:45, 15:00)	15:00	16:20
HH3	09:00	12:25 (13:45, 15:00)	15:00	16:25
HH4	09:05	12:30	15:00	16:30
HH5	09:10	12:30	15:00	16:30

#### 4. LH SARRERAK:

- a. Ikasleak musukoarekin sartuko dira eskolan.
- b. Geletan sartzean gel hidroalkoholikoarekin eskuak garbituko dituzte.
- c. LH5 eta LH6: Jolastokiko eskaileretatik sartuko dira. Eskaladako aterpean talde bakoitzari egokitutako eremuan zain egongo dira irakasleak sarrera eman arte.
- d. LH4: Jolastokitik sartu eta frontoiko aterpean talde bakoitzari egokitutako eremuan zain egongo dira irakasleak sarrera eman arte.
- e. LH1, LH2 eta LH3: kantxatik sartuko dira. Kantxako eremuan maila bakoitza zehaztuta egongo da.
- f. Ortzadar gelakoek kantxatik egingo dituzte sarrera-irteerak. Sarrera 09:10etan egingo dute.

#### LH IRTEERAK:

- g. LH 5 eta LH6: sartzeko modu berean egingo dute irteera, taldeka.
- h. LH1, LH2, LH3: Gezalatik kantxara aterako dira, taldeka.
- i. LH4: sartzeko modu berean egingo dute irteera, taldeka.

#### 5. AUTOBUSA:

- a. Autobusean musukoarekin joango dira ikasle guztiak, eta itxoiteko eremuetara musukoa jantziarekin joango dira.
- b. Eguerdietako irteera egiteko, ikasle bakoitza bere bidetik frontoira jetsiko da. Arratsaldean HHko ikasleak irakasle batek gelatik jaso eta dagokien begiralearengana eramango ditu. LHko ikasleak beraien taldearekin aterako dira eta dagokien begiralearengana joan. Begiraleak aterpeetan egongo dira: Donibanekoa frontoian, Gaitxurizketakoa eskaladan eta Altamirakoa frontoiaren beste aldean.
- c. Erabilera bakoitzaren ondoren eserlekuen beharrezko garbiketa egingo du enpresak.

#### 6. GOIZ TXOKOA

- Egungo egoera dela eta, ez da Goiz Txoko zerbitzurik egongo. Edozein aldaketaren aurrean informatuko zaizue.

## 7. HAUR HEZKUNTZA

### a. IKASLEAK

–Etxetik temperatura hartuarekin etorri beharko dute. Ikasleak sukarra edukiz gero, ezingo da eskolara ekarri.

–HHko ikasleek ez dute musukorik erabili beharko, nahiz eta gomendatua izan bere erabilera.

–Gela bakoitza bere burbuilean mantenduko da, HH2 izan ezik, 3 gelen artean burbuila bat osatuz.

–JOLASTOKIA:

. HH2koek beraien itxitura dute. Euria eginez gero, gelan geratuko dira.

. Gainontzeko Haur Hezkuntza: Euria eginez gero, 3 gunetan banatuko dira. HH3 eskaladako aterpean egongo da, HH4 frontoiaren aterpean, eta HH5 kantxan. Gune bakoitza gelaka banatuta egongo da.

. Ateri egonez gero, jolastokiko 3 gunetan banatuko dira:

GOIZEZ	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
HH3	Jangela	Gezala	Basoa	Jangela	Gezala
HH4	Gezala	Basoa	Jangela	Gezala	Basoa
HH5	Basoa	Jangela	Gezala	Basoa	Jangela

ARRATSALDEZ	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
HH3	Basoa		Basoa		Basoa
HH4		Basoa			
HH5				Basoa	

### b. IRAKASLEAK:

–Irakasleek musukoa eraman beharko du uneoro.

## 8. LH

### a. IKASLEAK

–Etxetik temperatura hartuarekin etorri beharko dute. Ikasleak sukarra edo COVID–aren sintomarik edukiz gero ezingo du eskolara etorri.

Uneoro musukoa erabili beharko dute ikastetxe barruan, jangelako jateko garaian izan ezik.

–JOLASTOKIA:

Hamaiketakoa patioan eserita jango dute.

Gelatik ateratzean gel–arekin garbituko dituzte eskuak, bueltatzerakoan ere bai.

Baloirik ez da patioa aterako, ikasle pilaketak ekidin eta distantziak mantendu ahal izateko.

Euria egiten duenean:

EURIAREKIN	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
1. MAILA	ESKALADA	FRONTOIA	KANTXA	KANTXA	GELA
2. MAILA	FRONTOIA	KANTXA	KANTXA	GELA	GELA
3. MAILA	KANTXA	KANTXA	GELA	GELA	ESKALADA
4. MAILA	KANTXA	GELA	GELA	ESKALADA	FRONTOIA
5. MAILA	GELA	GELA	ESKALADA	FRONTOIA	KANTXA
6. MAILA	GELA	ESKALADA	FRONTOIA	KANTXA	KANTXA
ORTZADAR	Libre	Libre	Libre	Libre	Libre

\*Gelan gelditzea tokatzen zaienean, tutorearekin geldituko dira.

ATERI	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
1. ZIKLOA	BASOA	JOLASTOKIA	KANTXA	BASOA	JOLASTOKIA
2. ZIKLOA	KANTXA	BASOA	JOLASTOKIA	KANTXA	BASOA
3. ZIKLOA	JOLASTOKIA	KANTXA	BASOA	JOLASTOKIA	KANTXA

\*3. ziklokoek jangelako orduan basoaren erabilera handiagoa izango dute.

### a. IRAKASLEAK:

–Irakasleek musukoa eraman beharko dute uneoro ikastetxean.

–Especialistek taldeen geletan emango dituzte beraien saioak.

–Gorputz hezkuntza egiteko gimnasioa, kiroldegia eta kantxa erabiliko dituzte, betiere segurtasun neurriak errespetatuz.

## 9. JANGELA

Egungo egoerak dituen berezitasunak kontutan hartuz eta bazkaltiar guztiei erantzuteko gogoz erabaki hauek hartu dira:

- Jangela zerbitzua 3 txandatan emango da.
- HH, LH 1 eta LH 2 talde egonkorak mantenduz bazkalduko dute.
- LH 3-4-5-6 1'5 metroko distantzia gordez bazkalduko dute.

### JARDUN JARRAIA

JANGELA		
1. TXANDA	13:00-13:30	HH, LH1 eta LH2
2. TXANDA	13:45-14:15	LH3 eta LH4
3. TXANDA	14:30-15:00	LH5 eta LH6

Txanden arteko 15 minutuak aretoa higienizatzeko erabiliko da.

### JARDUN ARRUNTA

JANGELA		
1. TXANDA	12:30-13:15	HH, LH1 eta LH2
2. TXANDA	13:30-14:10	LH3 eta LH4
3. TXANDA	14:25-15:00	LH5 eta LH6

Txanden arteko 15 minutuak aretoa higienizatzeko erabiliko da.

- HH izan ezik, bazkaltzeko musukoa kenduko dute eta bukatu ondoren berriz jarri.
- Egoeraren konplexutasuna kontutan hartuz, jangela zerbitzua beharrezkotzat jotzen baduzue soilik erabiltzea gomendatzen dizuegu.
- Jantokitik kanpo dauden denbora tartean talde bakoitza dagokion eremuan egongo da begiraleen zaintzapean.

Aurrerago ohiko araudi orokorra jasotzen duen eranskina bidaliko zaizue.

## 10. LIBURUTEGIA

Egungo egoera dela eta, ez da liburutegi zerbitzurik egongo. Irakasleek behar dituzten liburuak hartu eta geletara eramango dituzte.

## 11. GARBITZAILE ZERBITZUA

Udalak kudeatzen duen zerbitzua da hauxe. Egoerak eskatzen duen garbitasun eta segurtasun neurrien bermea jarraituz egingo da.

## 12. FAMILIEI ARRETA





[www.lezoherrieskola.eus](http://www.lezoherrieskola.eus)

Gurasoak hitzorduarekin etorri beharko dute eskolara. Hitzordua eskatzeko bide ezberdinak daude: Eskolako email orokorrak, tutorearen Inika edota telefonoa.

Bileretara datozenean, musukoarekin egingo dute eta sarreran gelarekin eskuak garbituko dituzte.

**\*KONTINGENTZI PLAN HONEK ALDAKETAK JASAN DITZAKE, HAUEN BERRI ZEHATZA HELARAZIKO ZAIZUE**